

EUROPAR BATASUNEKO ZERGAK ALDERATZEKO AZTERLANA

Bilbo, 2009ko urriak 5

AURKIBIDEA

0.- Sarrera

1.- Europar Batasuneko presio fiskalen arteko erkaketa

1.0.- Sarrera

1.1.- Zergen guztizko presio fiskala

1.2.- Zeharkako zergen presio fiskala

1.3.- Zuzeneko zergen presio fiskala

1.4.- Gizarte-kotizazioen presio fiskala

1.5.- Ondorioztapenak

2.- Europar Batasuneko zerga-tasen arteko erkaketa

2.0.- Sarrera

2.1.- BEZ tasa

2.2.- PFEZaren gehienezko tasa

2.3.- Sozietateen gaineko Zergaren tasa

2.4.- Ondorioztapenak

3.- Gogoetak

0.- SARRERA

Europar Batasunak bera osatzen duten estatuak adina errealitate ditu, eta zerga arloa ez da salbuespen, aniztasunari dagokionez.

Ekonomiaren egungo moteltze-egoerak gizarte-ereduarekin loturiko hainbat gai ekarri ditu hedabideetako eztabaidetara. Zerga arloa eztabaidagai horietakoa da, zergak gero eta premia handiagoak estaltzeko nahikoak diren ala ez diren, eta zerga-erreformen egokitasuna edo desegokitasuna, bereziki, ebaztekotan.

Gaur arte argitaratutako datu guztiek islatzen dutenez, Hego Euskal Herrian (HEHn) zergen bilketa pisua galtzen ari da. Errealitate horretaz jabeturik, hainbat kolektibok zerga-bilketa handitu beharraz ohartarazi nahi izan dugu gizartea: errenta handienen eta kapitalaren errenten gaineko zergak areagotu eta zerga-iruzurraren aurka borrokatu beharraz, alegia. Interes ekonomikoak defendatzen dituztenen ahotsek, aitzitik, Sozietateen gaineko Zerga eta gizarte-kotizazioak berriro jaistea eskatzen dute, abagune honetan lehiakortasuna hobetu behar delako aitzakiaz.

Azterlan honen xedea Hego Euskal Herriko zergak Europar Batasunekoekin (EBkoekin) alderatzea da, bai presio fiskalari, bai zergen tasei dagokienez. Helburua, finean, datu ofizialak baliatuz oraingo eztabaida horretan parte hartzea eta Hego Euskal Herriko zergen eta EBko beste herrialdeetako en egoerari buruzko ondorioak ateratzea da, irtenbide guztiei eta aldatzeko aukerari buruz hausnartzea ez ezik.

1.- EUROPAR BATASUNeko PRESIO FISKALen ARTEKO ERKAKETA

1.0.- Sarrera

Atal honetan, Hego Euskal Herriko, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) eta Nafarroako presio fiskalak, hau da, zerga-bilketak eta gizarte-kotizazioek lurralde bakoitzeko aberastasunean duten pisua, 27-EBkoarekin erkatuko ditugu.

Era horretan, zergek gure lurraldean eta EBn ezartzen duten zamaren pisuari buruz hausnartzea izango dugu.

1.1.- Zergen guztizko presio fiskala

Taulan ikus daitekeenez, zergen guztizko presio fiskala (zuzeneko eta zeharkako zergei eta gizarte-kotizazioei dagokiena) askotxo aldatzen da EBko estatu batetik bestera.

Datuen arabera, presio fiskalik handieneko herrialdeak Danimarka (BPGd-aren %48,7), Suedia (BPGd-aren %48,3), Belgika (BPGd-aren %44) eta Frantziako Estatuak (BPGd-aren %43,3) dira. Bestalde, 27-EBko batez besteko presio fiskala BPGd-aren %39,8koa izan da.

Hego Euskal Herriko presio fiskala aipatutako horietatik oso urrun dago, BPGd-aren %33,4koa izan da eta (%33,7koa EAEn eta %32,5ekoa Nafarroan). Modu horretan, HEHk BPGd-aren 6,4 puntuko defizita izan du 27-EBrekiko (6,1 puntukoa EAEn kasuan, eta 7,3 puntukoa, Nafarroarenean). 27-EBko herrialdeetatik aztertu diren 13en artetik, Greziak eta Irlandak bakarrik dute Hego Euskal Herrikoa baino presio fiskal txikiagoa (%32,1ekoa eta %31,2koa, hurrenez hurren).

Presio fiskalak agertzen duen defizit horrek hauxe esan nahi du: urtebetean (2007an, alderatzeko moduko azken informazioa urte horretakoa baita), HEHn, 27-EBko batez besteko presio fiskalaz bilduko zen dirua baino 5.360 milioi euro gutxiago bildu direla (4.020 milioi gutxiago EAEn eta 1.340 milioi gutxiago Nafarroan). Biztanleko zenbatetsiz gero, defizita 1.937,7 eurokoa izan da, batez beste (1.865,7 eurokoa EAEn eta 2.122,8 eurokoa Nafarroan).

Deigarria bada ere, Espainiako Estatuak berak ere badu, BPGd-aren %37,1arekin, HEHk baino 3,7 puntu gehiagoko presio fiskala. Diferentzia horrek, dirutan, 3.080 milioi euro gutxiagoko bilketa adierazten du. Datuak agerian uzten du Kontzertu Ekonomikoaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren erabilera okerra, bai eta horrek guztiak gizarte-gastuan dituen ondorioak ere.

ZERGEN GUZTIZKO PRESIO FISKALA (ZEHARKAKOAK, ZUZENEKOAK ETA
GIZARTE-KOTIZAZIOAK) (BPGd %). EUOPAR BATASUNA, 2007¹

	GUZTIZKOA	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	GIZARTE KOTIZAZIOAK ²
Danimarka	48,7	18	29,8	1
Suedia	48,3	17	19	12,2
Belgika	44	13,5	16,9	13,6
Frantziako E.	43,3	15,3	11,9	16,3
Italia	43,3	15	15,2	13
Finlandia	43	13,3	17,8	11,9
Austria	42,1	14,4	13,5	14,2
27-EB	39,8	13,8	13,6	12,4
Alemania	39,5	12,9	11,4	15,2
Herbehereak	38,9	13,1	12,3	13,5
Espainiako E.	37,1	12	13,4	12,2
Portugal	36,8	15,3	9,8	11,7
Luxenburgo	36,7	12,9	13,6	10,2
Erresuma B.	36,3	12,9	16,8	6,7
EAE	33,7	10,7	10,9	11,3
HEH	33,4	10,5	10,8	11,3
Nafarroa³	32,5	9,9	10,5	11,3
Grezia	32,1	12,3	8,1	11,7
Irlanda	31,2	13,5	12,8	4,9

Iturriak: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, IEN, Nafarroako Gobernua, TGSS


Hurrengo ataletan, zeharkako zergak, zuzenekoak eta gizarte-kotizazioak bereiziz aztertuko dugu ikuspegia.

1.2.- Zeharkako zergen presio fiskala

Europako zuzeneko zergei erreparatzean, HEH EBko azken tokian azaltzen zaigu, Espainiako Estatuaren atzetik, ondoz ondo, hain zuzen ere.

27-EBko batez besteko presio fiskala BPGd-aren %13,8koa izan delarik, HEHkoa BPGd-aren %10,5koa izan da (BPGd-aren %10,7koa EAEn eta %9,9koa Nafarroan). Hortaz, 27-EBko eta HEHko presio fiskalen arteko aldea 3,3 puntukoa izan da (3,1 puntukoa EAEn kasuan eta 3,9koa Nafarroarenean).

ZEHARKAKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPGd %). EUOPAR BATASUNA, 2007¹




Iturriak: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, IEN, Nafarroako Gobernua

1.3.- Zuzeneko zergen presio fiskala

HEHko zuzeneko zergen presio fiskala BPGd-aren %10,8koa da (%10,9koa EAEn eta % 10,5koa Nafarroan); beraz, HEH alderdi horretan ere ageri da Europar Batasuneko azken tokietan. Zuzeneko zergen kasuan, berriz, Portugalek (BPGd-aren %9,8) eta Greziak (BPGd-arten %8,1) erakusten dituzte Hego Euskal Herrikoa baino presio txikiagoak.

Zuzeneko zergei buruz ari garela, 27-EBko batez besteko presio fiskala BPGd-aren %13,6koa izan da; hortaz, HEH 2,8 puntu beherago ageri da (EAE 2,7 puntu eta Nafarroa 3,1 puntu beherago).

ZUZENeko ZERGEN PRESIO FISKALA (BPGd %). EUOPAR BATASUNA, 2007¹




Iturriak: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, IEN, Nafarroako Gobernua

Ondoren, zehaztasun handiagoz erreparatuko diogu zuzeneko zergen presioari, bertan ageri diren ezberdintasunak sakonago aztertzearen. Datuek islatzen dutenez, HEHn, defizit nabarmena dago PFEZaren presio fiskalean.

Zehazki, 27-EBn, PFEZaren presio fiskala BPGd-aren %9,4koa izan da, HEHkoa %6,3koa izan delarik. Hau da, HEHko eta 27-EBko presio fiskalen arteko aldea 3,1 puntukoa izan da (2,9 puntukoa EAEn eta 3,5ekoa Nafarroan).

Beraz, zuzeneko zergen presio fiskalean dagoen aldea PFEZn ageri denaren baliokidea da.

PFEZaren PRESIO FISKALA (BPGd %). EUOPAR BATASUNA, 2007¹




Iturriak: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, IEN, Nafarroako Gobernua

Garrantzi berezia duen zuzeneko beste zerga bat Sozietateen gaineko Zerga da. Hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, HEHn Sozietateen gaineko Zergaren azken presio fiskala Europakoaren antzekoa da: 27-EBko presioa BPGd-aren %3koa izan da, eta HEHkoa BPGd-aren %3,1ekoa (BPGd-aren %3,1ekoa EAEn, eta %3,2koa Nafarroan), hain zuzen ere. Hala eta guztiz, Europar Batasuna hasieratik osatu duten estatu gehienek presio fiskal handiagoa dute zerga horretan.

SOZIETATEEN GAINEN ZERGAREN PRESIO FISKALA (BPGd %).

EUROPAR BATASUNA, 2007¹



Iturriak: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, IEN, Nafarroako Gobernua


1.4.- Gizarte-kotizazioen presio fiskala

Gizarte-kotizazioei dagokienez, Europa mailako erkaketa ez da hain deigarria, kasu horretan, Luxenburgok, Erresuma Batuak, Irlandak eta Danimarkak HEH baino presio txikiagoa agertzen dute eta.

Dena den, 27-EBko gizarte-kotizazioen batez besteko presio fiskala BPGd-aren %12,4koa izan da, hots, HEHkoa, BPGd-aren %11,3ko presioa izan duena (EAEkoaren eta Nafarroakoaren berdina), baino 1,1 BPGd puntu handiagoa.

GIZARTE KOTIZAZIOEN PRESIO FISKALA (BPGd %)².

EUROPAR BATASUNA, 2007¹



Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, TGSS

1.5.- Ondorioztapenak

Atal honetan ikus dugunez, HEHko **batez besteko guztizko presio fiskala** 27-EBkoa baino txikiagoa da; horren ondorioz, Europar Batasunean batez beste baino 5.360 milioi euro gutxiago biltzen dira urtean. Defizit handiena **zeharkako** zergetan jazotzen da.

Europar Batasunarekiko hurrengo jauzi handia, **zuzeneko** zergetan hautematen da, eta PFEZak eragindakoa da. ELAk duela hainbat urte salatu zuen lehenengoz soldatakoak ez diren errentek PFEZan egiten duten iruzur fiskala. HEHn, PFEZaren bidez, 27-EBn baino 938,9 euro gutxiago bildu dira biztanleko (887 euro gutxiago EAEn eta 1.024,5 gutxiago Nafarroan), eta diferentzia horren zati baten arrazoia iruzur fiskala da.

Sozietateen gaineko Zergari buruz, argi geratu da ez dela egia Hegoaldean zerga horretan gehiago ordaintzen denik. Are gehiago, nahiz eta enpresen errentagarritasuna

altuagoa izan hemen, herrialde askok Sozietateen gaineko Zergen presio fiskal altuagoa dute.

Azkenik, Hego Euskal Herrian, **Gizarte Segurantzarako kotizazioen** presio fiskalean ere badago defizita Europar Batasunarekiko.

2.- EUROPAR BATASUNeko Zergen TASEN ARTEKO ERKAKETA


2.0.- Sarrera

Atal honetan Europar Batasuneko zergen taseen ikuspegia aztertuko dugu, BEZari, PFEZari (horren gehieneko tasa hartuta) eta Sozietateen gaineko Zergari begiratuz. Azterketa horrek, informazioa emateaz gain, egin beharreko zerga-erreformen inguruko eztabaidarako jarrera hartzen ere lagunduko digu.

2.1.- BEZ tasa

BEZa zeharkako zerga nagusia da, eta, estatu-mailan arautzen denez, Espainiako Estatu osoak du tasa bera. Estatuko BEZ tasa arrunta, eta beraz Hego Euskal Herrikoa ere, %16koa da, EBko **gainerako estatuetakoa baino nabarmen baxuagoa**, izan ere. EBko estatuetatik Luxenburgok eta Erresuma Batuak (%15) bakarrik dute Espainiako Estatukoa baino BEZ tasa baxuagoa. Gainontzeko estatuak tasa altuagoekin zergapetzen dute kontsumoa, eta Danimarka eta Suedia (%25), Finlandia (%22) eta Irlanda (%21,5) dira BEZ tasa altueneko estatuak.

ESTATU KIDEETAKO BEZ TASAK (%). EUOPAR BATASUNA, 2007¹




Iturriak: Eurostat, zergen arloko legeria

2.2.- PFEZaren gehienezko tasa

PFEZaren presio fiskala aztertzean aipatu dugunez, zuzeneko zergarik garrantzitsuenetakoa da hori. Hego Euskal Herriko **PFEZ**aren gehienezko tasa aztertzean, EBko herrialderik aurreratuenetako tasen **azpitik** dagoela ikus dezakegu, bai eta estatu kide gehienetako tasen azpitik ere. Zehazki, 2008ko ekitaldian PFEZean aplikatu den gehienezko tasa %45ekoa izan da EAEn eta %42koa Nafarroan. Espainiako estatuko tasa, bestalde, bi horien artean egon da: %43an, hain justu.

PFEZaren gehienezko tasarik txikienak dituzten estatuak Portugal (%42), Irlanda (%41), Grezia eta Erresuma Batua (%40) eta Luxenburgo (%39) dira. Beste muturrean, zerga-tasarik handienak dituzten estatuak Danimarka (%59), Suedia (%56,4), Belgika (%53,7) eta Herbehereak (%52) dira.

PFEZaren GEHIENEZKO TASAK (%). EUOPAR BATASUNA, 2008¹



Iturriak: Eurostat, zergen arloko legeria


PFEZaren gehienezko tasek izandako bilakaera aztertzean, **beheranzko joera** orokorra ikusten da Europar Batasunean, honako salbuespen hauekin: Austriak (%50) eta Erresuma Batuak (%40) berdin mantendu dute, eta Portugalek %40tik %42ra igo du.

EAEn, PFEZaren gehienezko tasa %56tik %45era jaitsi da 1998tik 2008ra bitartean. Nafarroako PFEZaren gehienezko tasa, berriz, 1998ko urtealdiko %53tik 2008ko %42ra igaro da. Jaitsiera horiek aztertutako herrialde guztietako artetik handienetakoak dira. Zehazki, PFEZaren gehienezko tasaren jaitsierarik handiena Frantziako Estatukoa izan da (13,2 puntukoa); bigarrena Espainiako Estatukoa (13 puntukoa), eta hurrengoak EAEkoa eta Nafarroakoa (11 puntukoak, biak ere). Gainerako herrialdeek jaitsiera txikiagoak izan dituzte, eta kasu askotan, askoz txikiagoak. Danimarkan eta Suedian, esaterako, PFEZaren gehienezko tasak guztietatik altuenak badira ere, oso jaitsiera apalak jazo dira (2,4 puntukoa Danimarkan eta 0,3 puntukoa Suedian).

EAEn eta Nafarroan PFEZaren gehienezko tasek izan duten bilakaera hori HEHko lau ogasunek errenta handienen zama fiskala arintzearen erabaki dituzten segidako

zerga-erreformen ondorioa da, eta, berez, areagotu egin du Europar Batasuneko herrialde garatuenera zegoen jautzia.

PFEZaren GEHIENEZKO TASAK (%). EUROPAR BATASUNA, 1998-2008¹



Iturriak: Eurostat, zergen arloko legeria


2.3.- Sozietateen gaineko Zergaren tasa

Zuzeneko zergarik garrantzitsuenetako beste bat **Sozietateen gaineko Zerga** da. Hedabideetako eztabaidetan oinarriturik Sozietateen gaineko Zergaren HEHko tasa nominala oso altua dela pentsa baliteke ere, grafikoak gezurtatu egiten du iritzi hori: berez, HEH erdibidean dago, Nafarroako tasa EAEkoa baino altuagoa delarik. Zehazki, EAEk %28ko tasa du ezarrita enpresa handientzat, eta Nafarroak, %30ekoa. Puntu honetan, Sozietateen gaineko Zergaren EAEko tasa Espainiako Estatuakoa (%30) baino 2 puntu baxuagoa dela azpimarratu behar da.

Tasarik altuenak Frantziako Estatuak (%34,4), Belgikak (%34) eta Italiak (%31,4) dituzte. Baxuenak, aitzitik, Danimarkakoa, Greziakoa eta Austriakoa (%25), eta Irlandakoa (%12,5) dira. Alemania (%29,8), Luxenburgo (%29,6) eta Suedia (%28), bestalde, Nafarroaren eta EAEn artean leudeke, tasei erreparaturik.

SOZietateen GAINeko ZERGAREN TASA NOMINALA (%).

EUOPAR BATASUNA, 2009¹




Iturriak: Eurostat, zergen arloko legeria

Sozietateen gaineko Zergaren tasa nominalaren bilakaerak ere **beheranzko joera orokorra** ageri du Europar Batasunean. EAE eta Nafarroa ere ez dira joera horretatik kanpo geratu, enpresek ordaindu beharreko zergak murrizteko ondoz ondo egin diren zerga-erreformen ondorioz.

Horrela, Sozietateen gaineko Zergaren EAEko tasa %32,5etik %28ra jaitsi da 1999 eta 2009 artean, eta Nafarroako jaitsiera are nabarmenagoa izan da, %35etik %28ra igaro da eta. Europari begiratuta, halaber, Alemaniako jaitsiera (%51,6tik %29,8rako) eta Irlandakoa (%28tik %12,5era) aipatu behar dira bereziki. Bestalde, estatu askok HEHkoa baino jaitsiera txikiagoak izan dituztela kontuan hartuta, aztertutako aldiaren hasieran EAE eta Nafarroa, besteen aldean, egoera hobean zeudela ondorioztatu daiteke.

SOZIETATEEN GAINEN ZERGAREN TASA NOMINALA (%).

EUROPAR BATASUNA, 1999-2009



Iturriak: Eurostat, zergen arloko legeria

2.4.- Ondorioztapenak

Atal honetako datuek frogatzen dutenez, Hego Euskal Herriko **BEZ**aren tasa Europar Batasuneko baxuenetakoa da.

Zuzeneko zergei dagokienez, halaber, **PFEZ**aren gehieneko tasak EBko herrialderik garatuenetako askotakoak baino baxuagoak dira. Horrez gain, HEHn PFEZaren gehieneko tasan izan den jaitsiera aztertutako herrialdeetan gertatu direnetarik handienetakoa da.

Aztertu dugun zuzeneko beste zergari buruz, hau da, **Sozietateen gaineko Zergari** buruz, ez da egia Europako altuenetakoa denik. Zerga honen tasa nominala jaitsi beharraren inguruko eztabaidari begira, ez da ahaztu behar zerga-arintze, salbuespen, kenketa eta abarren ondorioz, enpresek benetan ordaintzen duten tasa Sozietateen gaineko Zergaren tasa nominala baino nabarmenki txikiagoa izaten dela (Hego Euskal

Herrian, %17 ingurukoa). Izan ere, dagoeneko ikusi dugunez, HEHn zerga horrek BPGd-an duen pisua nahiko baxua da, Europako ikuspegian.

Sozietateen gaineko Zergaren tasa murriztuz joan diren erreformak justifikatzearren, askotan esan izan da horrela enpresen lehiakortasuna sustatu egiten dela. Baina argi utzi behar da, ordea, Sozietateen gaineko Zergak enpresen mozkinak zergapetzen dituztela, eta, beraz, etekinak lortzen dituzten enpresak izaki, zergak ez dio beraien lehiakortasunari eragiten. Enpresa lehiakorra ez bada, berdin dio zergen mailak.

3.- GOGOETAK

Oraingo egoera ekonomikoan, inoiz baino premiazkoagoa da zergen gaineko eztabaidari heltzea, batez ere presio fiskalari eta zergen tasei dagokienean, zerga-bilketa nola egin behar den eta zenbatekoa izan behar duen hausnartu eta, era berean, gastu publikoaren zenbatekoa eta erabilera zehaztu ahal izateko.

Azterlanak agertarazten duenaren arabera, HEHn, zuzeneko eta zeharkako zergen eta gizarte-kotizazioen zama fiskala, bai eta, beraz, guztizko presio fiskala ere, Europako batez bestekoak baino nabarmenki txikiagoak dira. Ildo beretik, dokumentuak agerian uzten du marjina egon badagoela, zabala gainera, PFEZaren gehieneko tasa (errenta handienak dituzten kolektiboek ordaindu beharrekoa), Sozietateen gaineko Zergarena (enpresen mozkinak zergapetzen dituenak) ...

Marjinari eta EBrekiko defizitari inolako kasurik egin gabe, HEHko administrazioek kontrako noranzkoan egin dute bidea azken urteetan, segidan egin dituzten zerga-erreformen funtsa errenta handienak, enpresenak eta kapitalarenak zergapetzen dituzten zergen tasak behin eta berriz jaistea izan da eta. Jokaera hori eta ohiko bihurtu diren pribatizazioak eta azpikontratazioak ekimen publikoaren gero eta pisu txikiagoa eta ekimen pribatuaren aupada eragiten ari dira.

Ondorioz, esan dezakegu ez dela egia lehiakortasuna hobetzeko eta kapital-ihesa saihesteko, zergak urritu behar direnik. Aitzitik, datuek erakusten dutenez, Europako estatu askotan HEHkoak baino zerga-tasa altuagoak eta presio fiskal handiagoak daude; beraz, hemen ere berdin jokatu daiteke.

Errenta altu eta kapitalaren gaineko errenten presio fiskala igoz zerga bilketa gehitzearen alde agertzen da ELA,, eta horretarako:

- Soldatakoak ez diren errentetan ematen zerga-iruzur itzelaren kontra borrokatu
- PFEZean:
 - a) Zergaren mailakakotasuna areagotu, PFEZaren gehienezko tasa igoz
 - b) Zerga horretan errenta guztiei trataera bera eman, kapital errenta eta enpresari eta profesional jardueren errenten aldeko tratuaekin bukatuz
- Sozietateen gaineko Zergaren tasa nominala igo
- Ondarearen gaineko Zerga ezeztatu den lekuetan, berriro ezarri
- Ondare handiak dituztenen onura bilatzen duen ingeniari-tza fiskala galaraziz.

Zerga-bilketa handituz gero, ez legoke gastu publikoa zertan murriztu, eta gainera, zorrarekin bat, gastu publikoa handitzea ahalbidetuko luke, administrazioaren birbanatzaile-lana sustatuz, horren premia are handiagoa baita orain.

¹ Europa mailako azken informazioa ekitaldi horretakoa da. Azterlana gehiegi ez luzatzeko, 15-EBko estatuei buruzko informazioa baino erabili ez dugun arren, aurkezten diren batez bestekoak 27-EBri dagozkio..

² Gizarte-kotizazioen presio fiskalaren kasuan, Espainiako estatuari buruz dagoen informazioaz kalkulatu dugun zifra BPGd-aren 0,4 puntu txikiagoa da Eurostatek agertzen duena baino. Hortaz, HEHko, EAEko eta Nafarroako gizarte-kotizazioen presio fiskala guk kalkulaturakoa baino 0,4 puntu handiagoa da, Eurostaten arabera.

³ Nafarroako toki-administrazioaren zerga-bilketari buruzko informazioa 2006ko ekitaldikoa da, dugun azkena da eta.

⁴ EAEko enpresa txikiek (Bizkaian eta Araban, 8 milioi eurotik beherako fakturazioa dutenek, eta Gipuzkoan, 10 milioi eurotik behera fakturatzen dutenek) %24ko tasa ordaintzen dute. Nafarroan, berriz, 9 milioi eurotik beherako negozio-bolumena duten enpresek %28ko tasa ordaintzen dute, eta milioi bat eurotik gorako negozio-bolumendunek, %23koa.

